

ADIZKI PERIFRASTIKOETAKO ADIZKI NAGUSIAREN FORMA

Aditz laguntzaile batuari buruzko erabakia Euskaltzaindiak 1973an eman zuen (ik. *Euskera* 1973). Aditz izenkiez, nahiz eta egungo euskara idatzian dagoeneko adostasun handi samarra lortua den, erabateko batasuna oraindik ez da gauzatu. On dirudi, hortaz, adizki perifrastikoen lehen osagaiaz zerbait finkatzea, beti ere batasun bidean.

Euskal gramatiketan aditz izenkia lau motatakoa dela esan ohi da: aditz oina (aspektu markarik gabea), partizipioa (aspektu marka burutuaz hornitua), etorkizuneko (-KO / -EN atzizkia duena) eta aditz izena (-T(Z)EN atzizkiduna). Hauek gainera, badira beste forma perifrastiko batzuk ere (-T(Z)EKO atzizkiarekin osatzen direnak, adibidez), baina hauek, forma eratorriak direnez, ez dute aditz paradigmatan leku berezirik izaten, alde batetik, eta oinarritzko forma zein den jakinez gero, ez dute arazo berezirik sortzen forma finkatzeko orduan. Oinarritzko lau forma direla onar daiteke, hortaz. Euskaltzaindiak lau kote horretako lehenbiziko kideaz, aditz oinaz, alegia, erabakia hartua du (ik. 28. ARAUA) jadanik. Beste hiruz izango da, hortaz, oraingo erabakia.

1. *Aditz oina* (IKUS, ETOR, EKAR, EMAN, JAIKI, LAGUN, MINTZA, ...).

Honen morfologi ezaugarria aspektu markarik eza litzateke. Aditz oinaren forma zein den esana du Euskaltzaindiak: ikus Euskaltzaindiaren 28. ARAUA.

2. *Partizipioa* (IKUSI, ETORRI, EKARRI, EMAN, JAIKI, LAGUNDU, MINTZATU, ...).

a. Euskal aditz zaharrek partizipioa bokalez amaitua izan dezakete: IKUSI, MIRETSI, BETE, JASO, BOTA, ...

b. Kontsonantez ere amai daitezke: JAKIN, EMAN, ESAN, EGON, HIL, ...

c. Baina -TU atzizkiak osatzen dira partizipio gehienak: AZTERTU, LABURTU, PUSKATU, LAGUNDU, ... Aditz berriek ere, eratorriek nahiz maileguz osatuek, bide hau hartzen dute: BIKOIZTU, LUMATU, FABRIKATU, DEKORATU, etab. Hain zuzen, hau da euskarak aditz berriak sortzeko eskura duen bide emankorra.

d. -TU atzizki honen ordez, -DU erabiliko dugu -N edo -L-z amaitzen den "oina" gertatzen bada ezkerretara: GIZONDU, LAZTANDU, AHULDU, ZABALDU, ZIPRIZTINDU, etab.

e. Dena den, badira zenbait aditz, partizipiorako forma zaharra eta forma berria, biak, onartzen dituztenak. Horrela jokatzen duten aditzak zein diren jakiteko hiztegiara jo behar da. Dena den, hona hemen horietako zenbait: AHANTZI / AHAZTU; JARRAIKI / JARRAITU; SINETSI / SINESTU; IRATZARRI / IRATZARTU, ... Adlatiboaren gainean eraikitako aditzek ere, badirudi bi formak onartzen dituztela: OHERA/OHERATU; ETXERA/ETXERATU; etab., nahiz eta erregulartasunerako joera nabaria den (*goratu nintzen*, *etxeratu nintzen*, *bururatu zitzaidan*, etab.).

Kontuan izan, hala ere, honako bikote hauetan ageri diren formak ez direla baliokideak: AGERI ≠ AGERTU; ARI ≠ ARITU; EZAGUN ≠ EZAGUTU; ... Hauetan argi dago -TU-dun adizkia partizipioa dela, aspektu burutukoa, beraz. Baina -TU gabeak ez du balio hori, aspektu puntukaria duten formetan erabiltzen baitira (*ari da*, *ageri zen*, etab. *bizi da*, *nahi du*, etab.-etan bezala, hain zuzen).

Multzo honetan sartu beharko genituzke, halaber, PASA eta KOSTA bezalakoak. Hauek -TU atzizkirik gabe ere forma burutuak osatzeko baliatzen ditugu: *pasa da, kostatzen da*, etab.

Alderantzizko kasua HELDU-rena izango litzateke, Ekialdeko erabileran, zubereraz izan ezik: *heldu da* ez da 'etorri da', 'dator' baizik.

3. *Etorkizuneko* (IKUSIKO, JAIKIKO, MINTZATUKO, EMANGO, ERRANEN, JINEN, ...).

Etorkizuneko adizki perifrastikoetako lehenbiziko osagaia partizipioari -EN edo -KO atzizkia gehituz eratzen da. Hortaz, euskaldunon usadioa ez da bat eta bakarra:

a. Mendebaldean -KO atzizkia da ezagutzen den bakarra: ETORRIKO, LAGUNDUKO, ESKATUKO,...

-N-ren ondoren gertatzen denean, -GO izango da atzizkia: ESANGO, IRTENGO, JANGO, EMANGO, etab.

-L-ren ondoren gertatzen denean, -KO eta -GO biak ageri dira: HILKO / HILGO.

b. Ekialdeko euskaretan, kontsonante ondotik -EN atzizkia erabiltzen da; bokalaren ondotik, aldiz, -KO (nahiz batzuetan -(r)EN ere agertu, batez ere Zuberoako tradizio zaharrean). Hortaz: EMANEN, ERRANEN, JANEN batetik; eta, IKUSIKO, BIZIKO, GALDUKO bestetik (baina horien ondoan IKUSIREN, BIZIREN edo GALDUREN ere bai, nahiz askoz maiztasun urriagoarekin).

Gauzak horrela, bidezko dirudi -KO formari ematea lehentasuna, berau baita usadiorik hedatuena.

Kontsonantez amaitzen diren partizipioen kasuan aski finkatua dago ekialdean -EN-en erabilera ere. Horrenbestez, euskara batuaren izenean zilegi litzateke kontsonantez amaitzen diren partizipioen kasuan forma honetaz baliatzea ere. Baina kontu egin bekie bikoiztasun honetatik sor litezkeen nahastei. Izan ere, -EN forma Iparraldekoa bada, ongi dator Iparraldekotzat ematen diren aditzekin (JINEN, UKANEN, etab.), baina Iparraldean ohikoak ez diren aditzekin, partizipioa kontsonantez amaiturik ere, ez dirudi oso egoki -EN forma erabiltzea. IRTENGO, adibidez, IRTENEN baino egokiago litzateke.

Hitz gutxitan esateko, tradizio jakina duten aditzetan tradizio hori kontuan hartu beharko da: Iparraldeko aditzat hartzen direnekin -EN ongi dator, baina aditz batek (IRTEN-ek, adibidez) Iparraldean tradiziorik ez badu, orduan nekez itsatsiko diogu -EN atzizkia partizipioari.

4. *Aditz izena* (JASOTZEN, ETORTZEN, JAIKITZEN, JATEN, ...).

Aditz oinari -T(Z)EN erantsiz lortzen da aditz izena. Hau da euskal literaturan ageri den jokabidea, nahiz eta zenbait euskalkitan bestelako formak ere badiren: POZKETAN (= poztzen); ZABALKETAN (= zabaltzen); OLGETAN, ... adibidez. Partizipioaren gainean eraikiak ere badira: POZTUTEN; LAGUNDUTEN, etab.

Dudarik gabe, forma nagusiak -TZEN eta -TEN dira, baina bata ala bestea erabili behar den ez da beti argi izaten: ETORTZEN / ETORTEN; IBILTZEN / IBILTEN; etab. Nolanahi ere, batasunari begira, usadio nagusia kontuan hartuz, hau litzateke gomendatzekoa:

a. Forma ugariena eta arautzat hartu beharrekoa aditz oinari -TZEN eranstea da: LAGUNTZEN, JASOTZEN, HILTZEN, DEKLARATZEN, BOTATZEN, BETETZEN, ZAPALTZEN, ...

b. Baina partizipioa -N-z amaitzen bada, orduan, -TEN izango da hobetsi beharrekoa. Beraz: ETE-TEN, IRTETEN, IZATEN, EGOTEN, JATEN, ESATEN, ERRATEN, ...

Kasu honetan Axularrengandik hasita Ekialdeko egungo euskaldunengaino hedatua dagoen -i- tar-tekatzea (*egoiten, izaiten, erraiten*, etab.) ez da, batasun bidean, gomendagarria.

c. Bestalde, aditz oina kontsonante txistukariz amaitua bada, orduan ere -TEN izango dugu aditz izenaren forma: IKASTEN, UZTEN, GUTXIESTEN, AHANZTEN, HASTEN, HAZTEN, HEZTEN, HESTEN, etab. Aditz arazleek ere, horrenbestez, -ARAZTEN egingo dute aditz izena.

Beraz, hau da Euskaltzaindiaren erabakia aditz perifrastikoetako lehen osagaiaren formaz:

1. *Aditz oinaren* formaz, ikus 28. ARAUA.

2. *Partizipioa:*

2.1. *Bokalez eta kontsonantez amaitzen direnak.*

Euskal aditz zaharrek partizipioa bokalez amaitua izan dezakete: IKUSI, MIRETSI, BETE, JASO, BOTA, ..., nahiz kontsonantez: JAKIN, EMAN, ESAN, EGON, HIL, ...

2.2. *-TU / -DU*

-TU / -DU atzizkiaz osatzen dira, ordea, partizipio gehienak. -DU forma aditz oina -L / -N-z amaitzen bada gertatzen da: AZTERTU, LABURTU, PUSKATU, LAGUNDU, BIKOIZTU, LUMATU, FABRIKATU, DEKORATU,... baina GIZONDU, LAZTANDU, AHULDU, ZABALDU, ISILDU, KIKILDU, etab.

Zenbait aditzek, partizipiorako, forma zaharra eta forma berria, biok, onartzen dituzte: AHANTZI / AHAZTU; JARRAIKI / JARRAITU; SINETSI / SINESTU; IRATZARRI / IRATZARTU, ...

3. *Etorkizunekoa:*

3.1. *-KO eta -GO*

Partizipioari -KO atzizkia gehituz eratzen da, orohar: LAGUNDUKO, IKASIKO, EKARRIKO, ZAPUZTUKO, BETEKO... Partizipioa -N-z amaitzen bada, atzizki horrek -GO forma hartuko du: JANGO, IZANGO, ESANGO, IRTENGO, etab. -L-z amaitzen bada, -KO nahiz -GO, biok dira zilegi.

3.2. *-EN*

Zilegi da, halaber, partizipioa -N / -L-z amaitzen duten aditzekin -EN atzizkiaz baliatzea etorkizuneko formak osatzeko: JINEN, UKANEN, HILEN, etab. Nolanahi ere, tradizio jakina eta mugatua duten aditzetan tradizio hori kontuan hartu behar da: Iparraldeko aditzat hartzen ahal direnekin -EN ongi dator, baina Hegoaldeko tradiziokotzat soil-soilik hartzen ditugunekin ez hainbeste. Beraz, IRTEN aditzaren kasuan, adibidez, hobe beti ere IRTENGO IRTENEN baino. Eta, alderantziz, JINEN eta UKANEN, JINGO eta UKANGO baino.

4. *Aditz izena:*

Aditz oinari -T(Z)EN erantsiz lortzen da aditz izena: JASOTZEN, ETORTZEN, JAIKITZEN, JATEN, ...

4.1. *-TZEN*

-TZEN erabiliko da orohar: LAGUNTZEN, JASOTZEN, HILTZEN, DEKLARATZEN, BOTATZEN, BETETZEN, ZAPALTZEN, ...

4.2. *-TEN*

-TEN erabiliko da partizipioa -N-z amaitzen duten aditzekin: ETETEN, IRTETEN, IZATEN, EGOTEN, JATEN, ESATEN, ERRATEN, ...

Ekialdeko euskalkietan ohikoa den *-i-* tartekatua (*egoiten, izaiten, erraiten*, etab.) ez da, batasunerako gomendagarria.

-TEN erabiliko da, halaber, aditz oina kontsonante txistukariz amaitua bada: IKASTEN, UZTEN, GUTXIESTEN, AHANZTEN, HASTEN, HAZTEN, HEZTEN, HESTEN, HAUSTEN, LAZTEN, etab. Aditz arazleek ere, horrenbestez, -ARAZTEN egingo dute aditz izena.

(Euskaltzaindiak, Baionan, 1998ko maiatzaren 29an onartua)